

EBALUAZIO-IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK:
IRAKASLE AGREGATUA

Atal bakoitza honela baloratuko da:

1.- Ikerketa-jarduerak eta ezagutza transferitzea	55 puntu gehienez
2.- Irakaskuntza-jarduera eta esperientzia profesionala	35 puntu gehienez
3.- Kudeaketa eta administrazioa	5 puntu gehienez
4.- Gehigarritzko prestakuntza akademikoa	5 puntu gehienez

Unibertsitatearen esparruan euskara normalizatzeko egindako jardueri dagozkien merituengatik, beste 10 puntu eskuratuko dira gehienez.

ATALAK	ATAL BAKOITZEAN GEHIENEZ LOR DAITEKEEN PUNTUAZIOA	AKREDITAZIOA LORTZEKO GUTXIENENKO PUNTUAZIOA
1.- Ikerketa-jarduerak eta ezagutza transferitzea	55 puntu	30 puntu
2.- Irakaskuntza-jarduera eta esperientzia profesionala	35 puntu	20 puntu
3.- Kudeaketa eta administrazioa	5 puntu	
4.- Gehigarritzko Prestakuntza akademikoa	5 puntu	
5.- Euskara	10 puntu	
GUZTIRA		65 puntu

Akreditazioa lortzeko beharrezkoa da:

A aukera. – Guztira 65 puntu baino gehiago lortzea eta, horrez gain, 1. atalean gutxienez 30 puntu eta 2. atalean gutxienez 20 puntu lortzea.

IRAKASLE AGREGATUA

1. IKERKETA-JARDUERAK ETA EZAGUTZA TRANSFERITZEA (55 puntu gehienez)

1.1. Argitalpenak (40 puntu gehienez)

- ISBNrekin argitaratutako liburuak: Liburua, Kapituluaren egilea, Testuaren koordinatzailea (editorea, Testuen itzulpena)
- Bere esparruko maila handiko/ertaineko aldizkarietan indexatutako zientzia-argitalpenak
- Erredakzio-kontseiluak edo nazioarteko berrikusleak dituzten aldizkarietan zientzia-argitalpenak
- Arte Ederren katalogoa

1.2. Ikerketako proiektuak eta kontratuak/Bere esparruarekin zerikusia duen ezagutza transferitzea (unibertsitateari lotuta edo OTRI/DEIKER edo antzeko zentroen bitartez)/Adituek baloratutako erakusketak edo esku-hartze arkeologikoak (15 puntu gehienez)

- Ebaluazio-agentzia aitortuak ebaluatutako deialdi lehiakorren bidez finantzatutako proiektuetan ikertzaile nagusi gisa jardutea: Autonomia-erkidegoetakoak, Estatukoak, Nazioartekoak
- Ebaluazio-agentzia aitortuek ebaluatutako deialdi lehiakorren bidez finantzatutako proiektuetan ikertzaile gisa jardutea: Autonomia-erkidegoetakoak, Estatukoak, Nazioartekoak
- Ebaluazio-agentzia aitortuek ebaluatu ez dituzten proiektuak: Ikertzaile nagusia, Ikertzailea
- Enpresa edo erakunde publiko nahiz pribatuen ikerketa-kontratuaren parte hartzea (gehienez 3 kontratu urteko)
- Ekintza berezietan edo ezagutza-sareetan parte hartzea
- Ikerketarako ekipo eta tresna-teknika berriak diseinatu, doitu eta erabiltzea, erabilera arrunteko softwarea garatzea, etab.
- Patente lizentziadunak; Patente lizentziagabeak; Beste mota batzuetako jabetza intelektuala
- Lan teknikoei edo artelanei buruzko txostenak, azterketak edo irizpenak (orduen arabera edo/eta guztizko ekonomikoaren arabera baloratuko da)
- Enpresetan edo erakundeetan antolamendua eta prestakuntza
- Transferentzia teknologikoko prozesuak/Industria-diseinuko prozesuak

1.3. Biltzarrak (5 puntu gehienez)

- Biltzarretan emandako hitzaldi gonbidatuak edo hitzaldi nagusiak: Nazioartekoa, Estatukoa
- Biltzarretan emandako ahozko komunikazioak edo posterrak : Nazioartekoa, Estatukoa
- Mahai-inguruetan parte hartzea
- Lantegiak

1.4. Hirugarren zikloko jarduerak (20 puntu gehienez)

- Doktoretza-tesien zuzendaritza (defendatutako tesiak)
- Ikerketako graduondoko edo doktoretza-programetako unibertsitate-irakaskuntzan esperientzia (unibertsitatean edo beste erakunde batzuetan)

1.5. Ikerketako beste meritu batzuk (3 puntu gehienez)

- Biltzarrak eta erakusketak antolatzea, zinema-jaialdien zuzendaritza, etab
- I+G+B planen plangintzan, eratzean eta/edo diseinuan parte hartzea
- Ikerketa-ekintzak eta ekintza teknologikoak ebaluatzeko kanpo-batzordeetan parte hartzea
- Ikerketa-taldean koordinatzaile izatea
- Bestelakoak

2. IRAKASKUNTZA-JARDUERA ETA ESPERIENTZIA PROFESIONALA (35 puntu gehienez)

2.1. Unibertsitate-irakaskuntzako jardunbidea (25 puntu gehienez)

- Unibertsitate-irakaskuntzan esperientzia, erakundearen aldeko balorazioa duena
- Bekadun gisa edo irakasle lankide akreditatu gisa parte hartzea (hitzarmenaren arabera)
- Graduondo akademikoko unibertsitate-irakasle gisa izandako esperientzia edo esperientzia profesionala (unibertsitateetan edo beste erakunde batzuetan)
- Tesinen, IADen, karrera-amaierako proiektuen eta abarren zuzendaritza
- Eskatzaileak irakasle gisa duen kalitatea egiaztatzeko aurkezten dituen ebaluazioak (ikasturteko ebaluazio positiboa duen ikasgai bat hautatu beharko da)
- Bestelakoak

2.2. Irakaskuntzako argitalpenak (10 puntu gehienez)

- Ospe handiko argitaletxeetan ISBNrekin argitaratutako irakaskuntzako argitalpenak
- ISBN duten irakaskuntzako beste argitalpen batzuk
- ISBNrekin argitaratutako eskuliburuak
- Erakundeak argitaratutako argitalpen birtualak (on line eskuliburuak)
- Irakaskuntzako liburuen itzulpenak
- Irakaskuntzako beste material batzuk (praktiketarako liburuak, gidaliburuak, web orriak, etab.)

2.3. Irakaskuntzako berrikuntza eta irakaskuntzako beste meritu batzuk (10 puntu gehienez)

- Irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan ikertzaile nagusi edo koordinatzaile gisa aritzea
- ECTSetan ikasgaiak erabat garatzea (ikaskuntza-gidak egitea)
- Irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzea
- Irakaskuntzan teknologia berriak erabiltzea (adibidez: web orriak, on line tutoretzak...)
- Europako Goi Mailako Hezkuntzako Esparrura moldatzeko taldeetan parte hartzea
- Koordinatzaile pedagogikoa/bateratze-koordinatzailea edo antzekoa
- Ikasleak mugitzeko programen koordinazioa
- Ikastaroaren edo titulazioaren koordinazioa (graduak edo graduondokoa)
- Praktika eta/edo practicum-a koordinatzea
- Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-esperientzia
- Unibertsitate-hedapenerako ikastaroak eta antzekoak antolatzea
- Unibertsitate-hedapenerako ikastaroetan irakasle gisa aritzea
- Beste hizkuntza batean egindako unibertsitate-irakaskuntza (ez ofiziala eta ez bere ezagutza-erlorkoa ez dena)
- Bestelakoak

2.4. Esperientzia profesionala (15 puntu gehienez)

- Arloari loturiko esperientzia profesionala (lizentzia fiskalaren edo lan-kontratuaren bidez akreditatuta)
- Ekintzailetza-jardueretan parte hartzea
- Bestelakoak

3. KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIOA (5 puntu gehienez)

3.1. Unibertsitateetako estatuetan jasota dauden (edo haiekin parekatu diren) unibertsitate-kudeaketako pertsona bakarreko erantzukizun-karguak betetzea, Unibertsitate-irakaskuntzako jardunbidea (5 puntu gehienez)

3.2. Administrazioan lanpostuak betetzea, hezkuntzaren alorrean edo norberaren esparruan ikertzaile gisa: (5 puntu gehienez)

3.3. Kudeaketako beste meritu batzuk (3 puntu gehienez)

4. GEHIGARRIZKO PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA (5 puntu gehienez)

4.1. Unibertsitate-irakaskuntzako prestakuntza (5 puntu gehienez)

- Europako Tesia edo Nazioarteko Unibertsitate entzutetsuetan doktoretza
- Doktoretzako aparteko saria
- 6 hilabetetik gorako masterrak edo graduatu ondoko ikastaro espezifikokoak
- Unibertsitateko beste titulazio batzuk
- Hizkuntzen akreditazioa, mailaren arabera, hizkuntza hori bere ezagutza-arloko gai espezifikoa ez bada.
- Jasotako prestakuntza-ikastaroak, 20 orduetik gorakoak
- Unibertsitateko irakasleak prestatzeko mintegi, biltzar edo ikastaroetan hizlari gisa aritzea
- Unibertsitateko irakasleak prestatzeko mintegi, biltzar edo ikastaroetan parte hartzea
- Bestelakoak

4.2. Ikerketako egonaldiak (3 puntu gehienez)

- Estatuko nahiz atzerriko unibertsitate- edo ikerketa-zentroetan doktoretza aurreko egonaldiak
- Estatuko nahiz atzerriko unibertsitate- edo ikerketa-zentroetan doktoretza ondoko egonaldiak
- Unibertsitateetan edo ikerketa-zentroetan irakasle bisitari gisa egonaldiak

4.3. Doktoretza aurreko eta ondoko beka eta ikerketako kontratuak (3 puntu gehienez)

- Ebaluazio-agentzia aitortuek ebaluatutako doktoretza aurreko beka eta kontratuak
- Ebaluazio-agentzia aitortuek ebaluatutako doktoretza ondoko beka eta kontratuak, edo Ramón y Cajal bezalako lanera itzultzeko kontratuak edo antzekoak (homologatuak)

5. EUSKARA (10 puntu gehienez)

- Euskaraz irakastea
- Doktoretza-tesiak euskaraz defendatzea (defendatutako tesiak)
- Euskaraz egindako irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan ikertzaile nagusi edo koordinatzaile gisa aritzea
- Euskaraz egindako irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzea
- Euskaraz argitaratutako liburuak, ISBNrekin
- Bestelakoak

Ikerketa-esperientziako merituei dagozkien UNIQUAL irizpideak, unibertsitateko langile irakasle eta ikertzaileak ebaluatu eta ziurtatzeko

Argitalpen zientifikoak, kideek berrikusteko prozesu anonimoa jarraitu dutenak. Ospe handiko aldizkarietan argitaratutako artikuluei emango zaie lehentasuna baloratzeko garaian. Ospe handiko aldizkaritzat joko dira Science Citation Index-eko, Social Sciences Citation Index-eko eta Arts and Humanities Citation Index-eko (Institute of Scientific Information, -ISI- Philadelphia, PA, USA) Journal Citation Reports-en “Subject Category Listing” delakoan zientzia-arloen araberrako zerrendetan lehen postuetan agertzen direnak, bai eta Philosopher’s Index-en, Répertoire Bibliographique de Louvain-en edo antzekoetan azaltzen direnak ere. Nazioarteko beste datu-base batzuetan jasotako aldizkariak, jakintza-alor espezifiko batzuei dagozkienak, kalitatezko erreferentziatzat joko dira. Aldizkari elektronikoak baloratuko dira, baldin eta ISIren zerrendetan agertzen badira. Zerrenda horiei dagozkien arloak eskatzailearen espezialitatearekin bat ez badatoz, batzordeak publiko egin beharko dituen beste batzuk erabili ahal izango ditu.

Zientzia-argitalpenak baloratzeko, besteak beste, eragin-indizea hartuko da kontuan.

Irakasle agregatua

Zientzia esperimentalen eta osasun-zientzien arloan, gehienezko puntuazioa eskuratu ahal izateko, gutxienez Science Citation Index-en jasotako 12 zientzia-argitalpen aurkeztu beharko ditu eskatzaileak (estandar gisa). Beren espezialitatean kalitate handikoak diren argitalpenei badagozkie, lan-kopuru txikiagoa ere onar daiteke (argitalpen horiek bere espezialitateko zerrendaren lehen herenean egon behar dute Science Citation Index-en, bere lan-esparruko arloan).

Osasun-zientziei loturiko diplomaturen kasuan, gehienezko puntuazioa lortzeko, Science Citation Index-en bere zientzia-arloko lehen bi herenetan agertzen diren gutxienez 5 argitalpen aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

Irakaskuntza tekniko arloan, gehienezko puntuazioa eskuratu ahal izateko, gutxienez Science Citation Index-en jasotako 8 zientzia-argitalpen aurkeztu beharko ditu eskatzaileak (estandar gisa). Beren arloan kalitate handikoak diren argitalpenei badagozkie, lan-kopuru txikiagoa ere onar daiteke (aldizkari horiek bere espezialitateko zerrendaren lehen herenean egon behar dute Science Citation Index-en, bere lan-esparruko arloan). Halaber, ingeniartzako nazioarteko datu-baseetan agertzen diren aldizkarietan argitaratutako artikuluek ere baloratuko dira (esate baterako, TRIS Electronic Bibliography Data, Internacional Development Abstracts, International Civil Engineering Abstracts, Environmental Abstracts, Applied Mechanical Reviews, Applied Science and Technology Index), bai eta arkitekturako argitalpenen nazioarteko indizeetan agertzen direnak ere (adibidez, Arts and Humanities Citation Index, Avery Index to Architectural Periodicals).

Salbuespen gisa, ospe handiko nazioarteko biltzarretako aktetan jasotako lanak ere baloratu ahal izango dira atal honetan, betiere, biltzar horien dibulgazio-ahalmena izen handieneko Journal Citation Report aldizkariarekin pareka badaiteke, eta hautapen-irizpideen zorrotasun-maila aldizkari horienaren antzekoa bada.

Gizarte-zientzien alorrean, datu-base hauetan edo alor horretan onartu ohi diren beste datu-base batzuetan agertzen diren aldizkari ospetsuetan argitaratutako zientzia-argitalpenei emango zaie lehentasuna balorazioa egiteko garaian: Science Citation Index, Social Sciences Citation Index, Econlit eta Latindex katalogoa.

Hala ere, alor honen berezitasunak direla eta, indexatu gabeko aldizkarietan argitaratutako artikulua ere kontuan hartu ahal izango dira, aldizkari horrek bere arloan duen ospe zientifikoaren arabera, eta artikulua hautatzeko prozesuan erabiltzen diren zorrotasun eta objektibotasunaren arabera. Indexatu gabeko zientzia-argitalpenak baloratzeko, hau hartuko da kontuan: informazioaren kalitatea (argitalpen-eta zientzia-batzordeen identifikazioa, egileei emandako jarraibideak, eskuizkribuak ebaluatu eta hautatzeko prozesuari buruzko informazioa, aurkibideen itzulpena, artikuluen izenburuak, gako-hitzak, ingelesezko laburpenak eta argitaratze-prozesuari buruzko datuak argitaratzea); argitalpen-prozesuaren kalitatea (aldizkakotasuna, erregularitasuna, arbitraje zientifikoa, berrikusleak, berrikusleen anonimatua, berrikusketa egiteko jarraibideak, erabakien komunikazio motibatua, erredakzio-kontseiluak eta aholkularia); kalitate zientifikoa (ikerketa-artikuluen ehunekoa eta onarpen-tasa); zabalkundearen kalitatea eta ikusgarritasuna (datu-base bibliografikoetan agertzea). Atal honetako ekonomia- eta enpresa-zientzietan, hezkuntza-zientzietan, komunikazio-zientzietan eta kazetaritzan, soziologian, politika-zientzietan eta administrazio-zientzietan gehieneko puntuazioa lortzeko, beharrezkoa izango da lehen aipaturiko indizeetan agertzen diren aldizkarietan gutxienez 2 artikulua argitaratuta edukitzea, eta lehen aipaturiko eskakizunak betetzen dituzten indexatu gabeko aldizkarietan 4 artikulua argitaratuta edukitzea (estandar gisa).

Portaeraren zientzietako arloei dagokienez, beharrezkoa izango da Social Science Citation Index, Science Citation Index edo Latindex katalogoan agertzen diren aldizkarietan argitaratutako gutxienez 4 artikulua aurkeztea (estandar gisa). Hala ere, atal honetan aipatu ditugun kalitate-eskakizunak betetzen dituzten indexatu gabeko aldizkariak ere kontuan hartu ahal izango dira. Beren arloan kalitate handikoak diren argitalpenei badagozkie, lan-kopuru txikiagoa ere onar daiteke (lanak argitaratu dituzten aldizkariak bere espezialitateko zerrendaren lehen herenean egon behar dute Science Citation Index-en edo Social Science Citation Index-en).

Zuzenbide-zientzien arloan, ospe handiko aldizkarietan argitaratu diren eta zabalkunde akademiko eta profesional handia izan duten lanei emango zaie lehentasuna balorazioa egiteko garaian. Gehieneko puntuazioa lortzeko, beharrezkoa da eskatzaileak lehen aipaturiko eskakizunak betetzen dituzten aldizkarietan argitaratutako 3 artikulua aurkeztea gutxienez, bai eta akreditatutako beste aldizkari-mota batzuetan argitaratutako 4 argitalpen aurkeztea ere. Beren arloan kalitate handikoak diren argitalpenei badagozkie, lan-kopuru txikiagoa ere onar daiteke.

Giza zientzien arloan, gehieneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak gutxienez 10 argitalpen aurkeztea (estandar gisa). Beren arloan kalitate handikoak diren argitalpenei badagozkie, lan-kopuru txikiagoa ere onar daiteke. Balorazioa egiteko garaian, lehentasuna emango zaie nazioarteko aldizkarietan argitaratutako artikuluei, horiek datu-base hauetan agertzea kalitate-erreferentziazat joko baita: FRANCIS, International Bibliography of the Social Sciences, Arts and Humanities Citation Index, Social Science Citation Index, CINDOC, Bibliography of the History of Arts (RLG), Historical Abstracts, International Medieval Bibliography, Index Islamicus, RILMS Abstracts of Music Literature, Philosopher's Index, Répertoire Bibliographique, International Bibliography of Periodical Literature in Humanities and Social Sciences (IBZ), Bibliographie Linguistique/Linguistic Bibliography (BL), Library and Information Science Abstracts. Datu-base horietan agertzen ez diren aldizkarietan, haiek joko dira kalitate-adierazletzat: kideek egindako kanpo-ebaluazioa edukitzea; nazioarteko zientzia-batzorde bat egotea; artikulua-kopuru handia argitaratzea, eta artikulua horien egileek ez izatea zuzeneko loturarik aldizkariarekin, erredakzio-kontseiluaren edo erakunde argitaratzailearen bitartez; aldizkariaren aldizkakotasuna, eta hiru urtetik gorako antzinatea izatea; ikerketa-lanak bakarrik argitaratzea; bere espezialitateari gehien loturiko erreperitorio eta buletin bibliografikoetan aipatzea; lanak hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratzea.